

ZENBAT BURU

Ana Artetxe

ERREPORTAIA

Etxeberria
funeraria

UDALETXETIK

Urriaren 23ko
udal plenoa

BERBETAN

Ruanda,
Juan Rodriguezen
ikuspuntutik

BARRREN

1998ko urriaren 30a
V. urtea - 254. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Etxeberria Funeraria

**“Laster tanatorioa ipiniko
dou martxan”**

“Gizaki guztiak hiltzen gara baina gutxi batzuek dakite bizitzen” Louis Pauwels



ELGOIBARKO UDAL
KIRO PATRONATUA



karatea



minixeta
fitness-a



saltsa



jubilatuak



gimnasia
ritmikoa



aerobika



haritz EDT

JAIALDIA

OLAIZAGA KIROLDEGIA 10. urteurrena

URRIAREN 31n
arratsaldeko 5etan



OLAIZAGA KIROLDEGIAN
sarrera dohain





ANA ARTETXE

Idatzi honekin bukatzen dira BARRENe-kiko nituen erantzukizunak, dagoeneko behintzat. Eta erantzun behar honek hainbat burukomin sortu badizkit ere, aukera paregabea izan dut nik sentitzen dudana zuoi, irakurleoi azaltzeko, eta oraingo honetan ere horretara natorkizue.

Isilik gaudenean aukera dugu hitz egin edo,... hitz egiten dugunean aukera dugu, euskara edo,... euskaraz ari garenean aukera dugu batuaz edo,... edo elgoibartarrez hitz egiteko. Makina bat bider entzun dugu Tolosa aldeko euskara, hori bai dela gauza ederra, ez guk egiten duguna. Eta zer topatzen diozue txarrik geureari? Askotan esan izan diet horrelakoak esaten entzun didanei, ni alfabetatzen hasi nintzenean harriturik gelditzen nintzela etxean jaso nuen hizkera batzuek esaten zutena baino hobeto hitz eginda zegoela. Izan ere, erroak onak zituen benetan, baserri-baserrikoak. BARRENeN hasierako urteak ziren, korrika edozeinek esaten zuen, baina antxitxika... elgoibartarrek.

Nire inguruan ez da batuaz asko hitz egiten, baina hala ere, amorratu ere egiten naiz

nire seme-alabaren batek galdetzen didanean: 'amatxo, zein egun da barixakua?'.

Ez al zarete pozten irratiz edo telebistaz ari den bati, elgoibartarra dela adierazi gabe, igartzen diozuenean? Eta hain hurbil egon arren, ez Eibarkoa, ez Debakoa eta ez Mutrikukoa dela konturatzen zaretenean? Eta zer deritzozue gure hizkerari? Nik arazo bat bakarrik ikusten diot, gaur egun horrela hitz egin dezaket

gazte bakarrak baserrietan daudela eta behetik gorako efektoa ematen den bezala, (hau da, kaltetik baserrira), gazte hauek batuaz ere hitz egiteko gai baitira, ez dela ematen goitik beherakoa (baserrietik kalera) eta kaleko gazteak ez dira hizkiz hitz egiteko gai. Beraz, zenbat urtetan jarraituko dugu entzuten, niretzat behintzat hain gustukoak diren

juat, jaonat, najauan eta jone?

Gustura sentitu izan naiz beti elgoibartarra izateaz eta harro, diodan bezala, nire herriko hizkeraz. Zorte handia izan nuen ni sortu nindutenek horrela erakutsi izateagatik. Amarekin, zorionez, jarduteko aukera dut. Beraz, idatzi hau jarduterik ez duenari eskaintzen diot: aitari. Hobeto esanda, aitxari.

Nire inguruan ez da batuaz asko hitz egiten, baina hala ere, amorratu ere egiten naiz nire seme-alabaren batek galdetzen didanean: 'amatxo, zein egun da barixakua?'.

Atal hau ez da BARRENeN editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrek, Birak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:

barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maider Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Iban Urizar,

Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlearitzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



Su-etena dela eta

Badira bi aste Elgoibarko zezenzale batek bultzatuta Mazzantini zenaren omenez talde bat sortu zela. Hori zela eta, berehala azaldu zen eragileak herrian duen taberna-jatetxean “Fiesta nazionala, kanpora”. Ez naiz zezenzalea, ezta animalien babes elkarteren bateko partaidea ere, baina horrela, plasta! horman, etxeko atarian (ia-ia aurpegian) egiten diren grafiti horiek su ematen didate. Ez dago eskubiderik!

Eztabaidagarria izango da festa horren zilegitasuna, eztabaidarako foroetan hitz egiteko. Batzuek horrekin politika egiten dutela. Eta zer? Denak zaku berean sartu behar al dira horregatik? Azpeitia, Iruñea, Bilbo... horietako guztiak ere politika egitearren al dira zezenzaleak?

Besteen iritzia eta jarrerekin ere behar harko dugu, ba, su-etena. Zezenei banderilarik sar ez diezaieten elkarri banderilak sartzan ibili behar al dugu? Jendea zure irizietara ekarri nahi baduzu, erabil ezazu ezta eta ez ozpina, txo!

A. U.

Irukurutzeta- Karakateko zentral eolikoari ez

Gure bizimoldearen antolatzaileek badirudi ez dutela nahikoa erreka hil eta airea kutsatzearekin, eta porlanetik zein kompetibitatekin ihes egin ez dezagun, plan bat asmatu dute. Arnasa hartzen ere ez digute utziko. Beraien egitasmoa: Euskal Herriko 374 km-tako mendigailurraren industrializazioa. Hauetako gehienak garrantziko espazio natural izendatuta egoteak bost axola die. Landare, animalia, paisaia, nekazal eremu etab.ri egingo dien kalteak, ‘haizearen lapur’ hauentzat ez du ezer balio. Akaso haizea beraiena da? Nondik atera dute gure arbasoek Karakate eta Irukurutzeta bitartean utzitako monumentu megalitikoak txikitze eskubidea? Zergatik sakrifikatu behar dugu hau gutzia interes ekonomiko eta erabat desarroitzen alde? Eraso bortitz hau egia bilakatu gero, adio esan behar duogun aparteko ingurune berezi honi. Sentimenduei dagokienez, guk aurreko eta osteko egunak bereiztuko ditugu.

Baina argi geratu dadila. Energia eolikoaren alde gaude erabat. Baina ez modu honetan. Ez edonola. Energia nuklear, petroleo etab.ren ordezkoa izan behar du zukeen energia garbi, bigun, berriztagarri (amaitzen ez dena) eta estensibo hau (ez zentralizatu), energia gogor, ingurua erasotzen duena, monopolizatu eta ez-alternatibo bihurtu du Iberdrolak. Ez dute inongo zentral termikorik itxiko, ez da energia kontsumoa murriztuko, eta ez dago energia nuklearra ordezkatzeko inongo asmorik (egun, Hego Euskal Herrian kontsumitzen den energiaren %36ak jatorri nuklearra du). Zentral eolikoak osagarri modura baino ez dira erabiliko, Iberdrola, BBV eta Gamesak etekinak ateratzeko iturri berria ikusi dutelako. Beti energia nuklearraren alde (gogoratu Lemoiz) eta armagintza industriaren alde egin dutenek, ‘berdez’ margotzen dituzte hitzak eta izugarrizko kezka azaltzen dute ingurugiroarengatik, hori bai, ‘berdeak’ irabazten dituzten bitartean.

Zentral eoliko bat ez da Andoni Aizpuruk ETBn saltzen digun irudi liluragarria: kalterik gabeko itxoroskiak biraka. Karakateko Irukurutzetara bitartean eraiki nahi duten 4 km-tako zentrala instalazio industrial bat da, eta honela osatzen da: 25 aerosorgailu, 60 metrokoak (Parrokia baino altuagoak) eta 50 tonakoak, bakoitza hormigoizko 100 m²ko plataforma baten gainean; lurrazpiko kanalizazio elektrikoa arketekin 30 metrokoa; subestazio elektrikoa, goi-tentsioko aire bidezko elektrizitate-haria, zerbitzu eta mantenimendurako bidea (250 tonako garabiak pasatu behar dira) eta berauek eraikitze kilometro askotako pista. Eta urtean 3 hilabetez bakarrik izango da errentagarria. A! eta gutzia 3.564 milioi pezetaxorengatik.

Zein xarmangarria! ‘Trikuarrien Ibilbidea’ ‘Gamesa eolikoaren etorbidea’ bihurtuta, barbakoa eta sonbriladun domingeroen zorionerako; horrela kotxe familiarrekin (ez da 4x4 bat beharrezkoa izango) Atxolin Txikiko tumulora arte iritsiko dira, ‘errota’ baten gerizpean piknik-a dastatzera. (Guretzat, On Kixoterentzat bezala, borrokatu beharreko erraldoi bat). Dena den, ezin dute siestarik egin, zarata 53 dezibeliotik gorakoa izango baita.

Elgoibarko Gazte Asanblada

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.

ZUZENKETA:

Urriaren 26an, BARRENeK hauteskudeen emaitzekin atera zuen orri berezian, datu bat oker zegoen. Plaza Txikian PPK jasotako botoen kopurua ez zen 655, **365** baizik. Hala ere, emaitza totala ondo zegoen: **1.021** boto jaso zituen PPK Plaza Txikian. Presaka egitearen ondorioz gertatzen dira horrelakoak. Barkamena denoi.

GALDERAK

◆ **Mintxetako kanpo aldean pasiaran ibiltzen den emakume batek eskaera bat egin nahi du. Azken egunotan egin duen euritearen ondorioz, kanpoko zirkuituko zati batzuetan ez dago ibiltzerik sekulako potzuak daudelako. Horregatik, aparkaleku iguruan geratu behar izaten gara pasiaran. Posible izango litzateke zirkuituko zati hauetan 'grabilla' moduko zerbait botatzea potzurik ez sortzeko?"**

Hirigintza Saileko Jose Mari Oruesagastik esan digunez, ezinezkoa da zirkuito horretan harri txikirik edo antzerakorik botatzea. "Gogoratu ein bihar da Nazioarteko Mugerza krosa ibilbide horretan eitzen dala eta lurra aldatuko bagendu ezingo litzake karrera bertan ein. Ego-Tokikuekin kontsultau izan dot gai hau eta karreraren kategorixia mantendu nahi badou, zirkuitua dauan moduan laga bihar da".

KEXAK

◆ **Guraso batek deitu digu honako kexa hau azaldu nahi duela-eta: "ez dut ulertzen zergatik larunbatero Kiroldagian egiten diren Eskola Kiroletan ez zaigun ikusleoi harmailetan esertzen uzten. Aurreko larunbatean 76 pertsona egon ginen goiko baloietan pilatuta eta gainera, ordu eta erdi zutik egon behar izan zuten haur eta nagusi askok".**

B AI, E S A N ?



M^a Carmen Villanueva

Pasa berri diren Hauteskunde Autonomikoetako kanpainan, izan da askoren ahotan ibili den gai bat: 'maleta' famosoei buruz ari gara. Batzuen esanetan, Lizarrako Akordioan sinatutako helburuek aurrera egiten badute, asko eta asko 'maletak' egin beharrean izango dira. **Mari Carmen Villanueva** Galizian jaioa da eta duela 12 urte etorri zen Elgoibarrera. Integrazio prozesua eta maletak aitzaki hartuta egon gara berarekin.

- **Zer aurkitu zenuen Euskal Herrira estreinakoz etorri zinean? Integrazio arazorik bai?** - Duela 12 urte etorri nintzen, 29 urterekin, eta ez nuen arazorik izan, inondik inora. Alderantziz, elgoibartarrek izugarri ondo hartu gintuzten. Begiratu besterik ez dago: negoziua bertan daukagu, lagunak, seme-alabak,... dena.

- **Somatu al duzu sekula diskriminaziorik 'kanpotarra' izateagatik?** - Sekula ez. Hain pozik nago hemen oporretan ere ez naitzela Galiziara joaten. Absurdoa da oporretan kanpora joatea bertan daukagunarekin. Leku zoragarri asko dago ikusteko.

- **Eta euskaraz ez jakiteagatik?** - Ezta ere. Begira zer gertatu zitzaidan 'Kilometroak' izan zenean: gaztelaniaz hitz egiten ez zekiten baserriar ugari etorri zitzaizkigun okindegira eta nik euskararik ez nekiela ikustean, esfortzu handia egin eta elkar ulertzeko moduan erderaz berbetan aritu ziren. Euskaldunak dira gurekin ulertarazteko ahalegina egiten dutenak, guk euskara ikasteko egin izan duguna baino handiagoa. Gure jarrera oso komodoa da. Nire anaia Alemaniara joan zen eta hango hizkuntza ikasi behar izan zuen. Hona etorri ginenean gure zeregina euskara ikastea zen, apur bat besterik ez bada, baina... Semeek, behintzat, ikas dezaten arduratu gara.

- **Galizian jaiotako euskalduna ala Elgoibarren bizi den galiziarra zara?** - Galiziarra naiz, hori hala da, baina hemengoa ere banaiz. Ez diot nire jaioterriari uko egiten baina ni hemen bizi naiz eta bertakoa naiz. Galiziara joaten naizenean adibidez, egun batzuk pasatu eta gero, Euskal Herrira etortzeko beharra sentitzen dut.

- **Ba al duzu 'maletak egin' beharko duzun beldurrik?** - Ez. Botoak lortzeko taktika izan dela uste dut. Are gehiago, abertzale amorratu batek zera esan zidan behin: "hemendik joatera behartzen bazaituzte ni zurekin joango naiz!".

ESKERTZA



1998ko urriaren 14an, 86 urte zituela hil zen VALERIO ESNAOLA ARAKISTAIN 'MUXILLO' ren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Etxeberria

funeraria

hiru belaunaldi lanean

Ba al zenekiten hil eta gero, gorputza erre eta hautsak kohete bidez espaziora eramateko aukera dagoela? Ez hori bakarrik, hilkutxa-saltzaileek promozioa egiteko, "hilkutxa hau Camaron de La Islaren hiletan aukeratu zuten, eta beste hau Bola Flores hil zenean" eta antzekoak erabiltzen dituzte. Igandean, azaroak 1, Domusantu eguna da, hildakoen eguna. Aste honetan Etxeberriatarrekin egon gara. Izan ere, Florentino Etxeberriak hasi zuen negozioari eusten diote oraindik orain haren seme eta bilobek eta Elgoibarren dagoen funeraria bakarra beraiena da. Eurek kontatu dizkigute lanbide honen inguruko guztiak.

Florentino Etxeberria arotza zen eta berak egiten zituen hilkutxak. Jesus Mari Etxeberria semeak esan digunez, "bateonbat hiltzen zanian aitxak itxen zitxun kajak egurrakin. Gero telta beltz batekin forrau eta sedazko borla batzuk jartzen zian adornatzeko. Jendiak borla hoiek hartu eta rekuerdo bezela eruaten zitxun". Garai hartan, gainera, ez pentsa gaur egun hain ezagunak diren autoak erabiltzen zirenik, "oinez itxentzan dana. Kajia in eta ge-

ro hildakuan etxera eruaten zian oinez, baserrihan bizi bazan ere berdin. Eta gero, hiletara, etxetik elizara oinez eruaten zian kajia hildakua-kin, sorbalda gainian hartuta".

Aroztegia eta funeraria

Jesus Mari kume-umetatik ikusi izan zuen aita aroztegian hilkutxak egiten, "50 urte baino gehixio izango dia. Beti ezautu dou aitxa kajak itxen, baina hori karpinterixako lan bat gehixio zan. Negozixua karpinterixia zan, ez funerariixia". Egia esan, aroztegia aurten laga dute, orain arte biak, funeraria eta aroztegia, mantendu baitituzte.

Dena dela, hilkutxak eskuz egiteari laga zioten eros-

teko aukera zegoela ikusi zutenean, "kajak eskuz itxiak lan eta denbora asko zakan eta ez zaban kompensatzen. Gero eta representante gehixio etortzen zian euren kaja modelo desberdinak erakusten eta askoz rentabliuua urtetzen zan haiei erosi eta gero guk saltzia". Orduetik, beraz, Etxeberriatarrek hilkutxak enkarguz erosten dituzte.

Duela 30 urte hasi zirenean funeraria bezala funtzionatzen, "etxietara jutten hasi ginanian, pasau izan jakun hildakuan izenik jakin ez eta deitxian, 'hemen bizi al da hildakua?' galdetxia". Etxeberriatarrek esan digutenez, "hasieran kotxia Eibarko funerariakueri alkilatzen genien, baina 1969an SEAT 1.500 autua erosi gendun, ondiok ere badabilena. 1992xan erosi gendun bigarrena, Peugeot 405-a, baina batzuek kalia esaten digute euei ordua ailegatzen jakuenian, nahixao dabela 1.500 kotxe zaharrian jutia. 'Bouquet'-agatik izango da!".

Hilkutxak 80.000 pta.tik gora

Etxeberriatarrek, Jesus Mari esan duen bezala, "hil eta geroko gauza guztiez" arduratzen dira, "familiak hildakoa jartzen da eta guk beste guztia itxen dou". Hau da, funeraria arduratzen da kalean eskelak jartzeaz, irrati eta egunkarrietan eskela jartzeko deia egiteaz, familiak hala eskatzen badu hilda-



Andoni eta Jesus Mari Etxeberria Seat 1.500-arekin

koa jantzi eta hilkutxan sartzeaz, hiletaren egunaz eta orduaz apaizarekin hitz egiteaz, nitxoaren edo panteoiaren gaiaz, istripua izaten bada gorpua jasotzeaz eta abar.

Hilkutxek 80.000 eta 350.000 pta. bitartean balio dute, "egurraren arabera, barrua zela dauan forrouta, formia, zenbat kristal dakan... Kotxiak bezela dia, danak berdinak baina desberdinak, eta bakoitzak prezio bat daka". Jendeak, gainera, uste baino askoz garrantzia gehiago ematen dio gai honi. "Batzuei ez jakue inporta baina badaude garrantzi haundia ematen diuenak ere. Pasau izan da jendia etorri eta 'nik fulanitok euki zaban kajian bezelakua nahi dot' esatia. Elgoibar herri txikixa da eta danok elkar ezautzen dou. Hiletetara jende asko juten da eta gauza guztietan, detaile guztietan fijatzen gera". Saltzaileek ere erabiltzen dute taktika hori, "hilkutxa hau Camaron de La Isla hil zenean eraman zuten, edo beste hau Lola Floresen hiletan" esaten dute.

Konpetentzia

Elgoibarren funeraria bakarra egoteak ez du esan nahi konpetentziarik ez dutenik, "Eibarren beste bi daude eta Donostiakuekin ere ibiltzen gera burrukan, ze gero eta jende gehixo hiltzen da ospitalian eta Donostiakuak, nahiz eta hildakua Elgoibarkua izan, eurek nahi izaten dabe ekartzia gorputza. Gu izan ginan lelenguak Gipuzkuan, 1991. urtian, Donostiatik herrira ekartzen hildakuak".

Bizi itzaropena igotzeak izan du eraginik negozioan, "baina ez jende gitxio hiltzen dalako. Zaharrak gero eta zaharrrauak dianian hiltzen dia baina, zoritxarrez, jende gazte asko hiltzen da, bai istripuz, bai droga asuntuengatik... Elgoibarren danok dakigu zer bizi doun eta gazte asko hiltzen da. Alde horretan bai igarri da desberdintasuna".

Horrenbeste urteko negozioa izan arren, esan digutenez sekula ez zaie okerrik gertatu, "batzuei pasau izan jakue gorputza konfundiduta hartzia... Guri pasau izan jaku hildakuari ezkerreko zapatia eskuman jartzia eta bateronbaketek



komentau zaban, 'berdin da, hemendik aurrera ez da oinez gehixegi ibiliko...'. Umoria ez da sekula falta bihar".

Tanatorioa

Aurretik esan dugun bezala, aroztegia aurten laga dute eta horren orde, obrak hasi dituzte tanatorioa jartzeko. Gaur egun Zarautzen eta Donostian bakarrik dago eta Azpeitin ere zabaldu berri dute. Esan digutenez, "gero eta jende gehixaok nahixau dau gorputza tanatorixuan lagatzia etxian eukitzia baino. Komoduaua da familixiantzat".

Tanatorioaz gain krematorioaren gaia ere hor dago. Derion ba omen dago bat eta Oreretan, Donostian eta Gasteizen jarri berri dituzte. Ei-

ba-
rren ere bada-
biltza zerbaitetan.
Dirudienez, eskaera gero eta handiagoa da, "gero eta gehixok nahixao dabe hildakuan gorputza erretzia lur azpitan edo nitxuan sartzia baino. Gainera, merkiaua da. Nitxuana 100.000 pta.tik gora urtetzen da eta erretzia 70.000 pta.kin in laike". Gainera, badirudi azken boladan hautsak mendira edo itsasora botatzea gustatzen zaiola jendeari. Ez hori bakarrik, Jesus Marik esan digunez, "guri ailegau jaku propandia hil eta gero hautsak kohetian espaziora eruateko! 700.0000 pta. balio dau!".

Etxeberritarrek urte asko daramatzate negozioan eta gaur egun familia osoak laguntzen du, era batera edo bestera, eta Josu eta Andonik, Julian Etxeberria zenaren semeek, negozioari eusteko asmoa dute. Etxeberriatarren belaunaldi berria aurrera doa.

Hilkutxek 80.000 eta 350.000 pta. artean balio dute.



Beldurtzen al zaitu heriotzak?




RUFINA PEÑAGARIKANO
51 urte, etxekoandrea

Bai. Hala ere, askotan pentsatzen dot beste zeozertan bihurtzen gerala. Oin dala 10 urte hil jatan senarra eta biloba ikustian, senarra hamen dauala pentsatzen dot.



31 urte, espezialista

Bai, eta beldurrik ez duela esaten duena gezurretan dabil. Heriotza eta gero ez dagoela ezer uste dut eta gehiago ez naizela biziko pentsatzeak beldurtzen nau.




ROSA ARRIOLA
36 urte, etxekoandrea

Piska bat bai, mundu hone-tatik baguaz eta dana lagatzen dou bertan. Hala ere, inguruko pertsonak hiltziak min haundixaua sortzen dau.




ROSARIO IRIONDO
67 urte, jubilatua

Batere ez. Danak hil bihar gara eta hor ez dao bueltarik. Ama hil zitzatan oin dala 8 hilabete eta zer eingo diozu ba? Datorrenian hartu ein bihar.



SATURNINO LEÓN
52 urte, mekanikoa

Ez. Gauza guztiak bezala heriotza ere heldu egiten da eta datorrenean onartu egin behar da. Sufritzen hiltzeak, ordea, horrek bai ematen dila beldurra.



JESUS M. IGAÑA
46 urte, jubilatua



Ez. Oindiok behintzat beste 100 urte bizitzeko esperantzia dakat! Lelengo jaixo eta gero hil, hori da bizitza. Datorrenian onartu eta kitto.


JOSE LUIS LEÓN

BOUTIQUE DEL PAN
Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria
San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 943 74 33 92

INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

I. URTEURRENA
1997ko urriaren 25ean, 57 urte zituela hil zen
RAMON SAN MARTIN OTEGIren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan
larunbatean, hilak 31, arratsaldeko 19:30ean.
Joaten zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



Osasunean adituak

GAIA:

Viagra

Egunkari, telebista eta berriketa txokoetan makina bat aldiz atera da Viagraren gaia. Urriaren 19an Osasun Ministerioak Viagra Estatuan saltzeko baimena eman zuen. Pfizer izeneko laborategia da pastila famatu hauek egiten dituen eta azaroaren hasieran erosi ahal izango da farmazietan. Ereizioa eragiteko pastila urdin hau medikuak emandako errezetarekin bakarrik salduko da baina, hala ere, Seguritate Sozialak ez du beharpenik egingo, beste botika askoren kasuan bezala. Viagra pastila baten prezioa 1.502 pta.koa izango da 25 miligramokoa bada, 1.753 pta.koa 50 miligramokoaren kasuan, eta 100 miligramokoarengatik 2.128 pta. ordaindu behar ko dira. Izan ere, Estatuan ezarri den salneurria EEBBetakoa baino garestiagoa da, han 1.260 pta. ordaindu behar baita edozein dositako pastilarengatik.

Estatu espainolean ez dago ikerketarik inpotentzia zenbat gizonetarako sofritzen duten jakiteko baina kalkuluen arabera, 1,5 milioi gizonetarako izan dezakete ereizioa lortzeko arazoren bat. Euskal Herrian 40.000 edo 60.000 gizonetarako eragin diezaike gaitz honek.

Bilboko 'Euskalduna' klinikan Viagra-ekin azterketa bat egin dute eta 42 gaixoren artetik %60ak lortu zuen hobekuntza nabaria ereizioan. Beste herrialde batzuetan Viagraren eraginkortasuna gaixoen %72ak igarri zuen.

MASAJISTAK

Ezkurra

..... Santa Ana, 14 • Tel: **943 74 08 96**
 Egunero: 15:00-20:00

Victoria Iraegi

..... P. Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
 Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
 Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
 Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**
 Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
 Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
 Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeke 943 74 41 12ra

● Pago-zizekin kontuz ibiltzeko ohartarazi dute Karakate Mikologia Elkarteak

Karakate Mikologia Elkartekoen idatzi bat bidali dute pago-zizekin kontuz ibiltzeko ohartaraziz. "Pago-ziza (Lepista nebularis da izen zientifikoa) gaztelanaiz 'pardilla', sarritan jaten dugun perretxikoa da. Hala ere, eta harrigarria badirudi ere, pago-zizak hesteetako gaitzak eta bestelako ondoezak eragin ditzake: tripako mina, gonbitua, beherakoa etab. Beraz, beharrezkoa da neurriak hartzea. Karakatekoek esan digutenez, batzuetan sukaldean gaizki prestatzen direlako sortzen da ondoeza eta besteetan perretxikoa bera izaten da gaitzaren eragileak.

Perretxiko biltzaileak eta perretxikozaleak jakinaren gainean jartzeko, Karakate Mikologia Elkartek zabalkunderako orria banatu zuen iaz. Bertan horrelako gorabeherak ez gertatzeko zenbait aholku ematen dituzte. "Benetan pago-zizak direla ziurtatu eta ez nahastu itxura berekoa den Entoloma Lividum pozoitsuarekin. Ez eraman plastikozko poltsetan, usteldu eta alferrik galtzen dira eta honek tripako arazoak sor ditzake. Perretxiko gazteak eta freskoak kontsumitu. Pago-zizak dijeritzeko astunak dira, beraz, ez gehiegi jan. Ez jan sekula labean erreta, ezta parrilan ere. Ondo frijitu taparik gabe, zizen osagai aktiboak ebapora daitezzen". Azkenik, pertsona batzuen organismoak ez duela perretxiko hau onartzen gogorarazi nahi dute, "alerjiak, beherakoak eta horrelakoak ager daitezkeelarik".

Mendizaleak eta ekologistak, Karakateko parke eolikoaren kontra

Hainbat ekintza erreibindikatio antolatu dituzte astebururako

Morkaiko Mendizale Elkartek eta Gazte Asanbladak bat egin dute eskualdeko hainbat mendi elkartekin, Eguzki eta Eki moduko talde ekologistekin eta Gipuzkoako Mendi Federazioko Ingurugiro Batzordearekin Karakate-Irukurtzeta mendi-lerroan eraikitzea nahi duten parke eolikoaren kontra. Dagoeneko egin dira hainbat ekintza asmo honen aurka. Izan ere, urriaren 18an mendi-irteera antolatu zen Elgea-Urkillako mendilerroa (Oñati), bertan eraiki nahi baita Euskal Elkarte Autonomoko lehengo parke eolika. Karakate-Irukurtzetako mendi-lerroan parke eolika eraikitzeke asmoaren kontra, zapatuan eta domekan, urriak 31 eta azaroak 1, akanpada, mendi-irteera erreibindikatioa eta reggae jaia izango dira Morkaiko Mendi Elkartearen eta Gazte Asan-



bladaren partaidetzarekin.

Euskal Autonomi Elkarteko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialak 2005 urterako gutxienez 175 Mwko potentziaren instalazioa aurrakusten du, horretarako 23.750 milioi pta.ko inbertsio beharko delarik. Aukeratutako kokalekuak 19 dira, horietako bat Karakate eta Irukurtzeta bitarteko mendi-lerroa. Bertan eraiki nahi duten parke eolikoak 3.564 milioi pta.ko kostua izango luke.



Perretxikozaleen enbidia sortuko duten honddoak

Perretxikozaletu askori haginak zorrotzu eta begiak biribilduko zaizkie bi honddo eder hauek ikustean. Badirudi azken aldian egin duen eguraldia mesedegarria izan dela perretxikoentzat. Izan ere, argazkian ikus daitezkeen bi honddo erraldoi hauek agertu dira azken astean Elgoibar inguruan. Manuel Gallegok duela bi aste 1,250 kilo pisatzen dituen honddoak aurkitu zuen (ezkerreko argazkian emaztea) eta J. Angel Aizpitartek, berriz, 1.200 kilokoa (eskumako argazkian emaztea). Esan digutenez, oso perretxikozaleak dira bai bata bai bestea eta gustura baino gusturago jango dituzte. On egin diezaiela, beraz!



Estimazio handia izan du gantxilo ikastar oak

Elgoibarko Izarrak antolatutako gantxilo ikastaroak estimazio handia izan du elgoibartarren artean. Bost taldetan banatuta, 30 lagun ari dira Mari Karmen Elorzaren eskutik gantxiloa ikasten eta perfektzionatzen. Izan ere, bi maila daude: ezer ez dakitenena eta teknika hau zerbatxobait ezagutzen dutenena. Talde bakoitzak astean 3 orduz jarduten du eta argazkia ateratzera joan ginenean esan zigutenez, "pena handia emango digu ikastaroa amaitzeak. Berriz ere antolatzea gus-tatuko litzaiguke. Eta irakaslea, txapela kentzeko modukoa da".

● Administrarritza orokorreko oposaketaren lehen froga

Udaletxean hutsik dagoen Administrarritza Orokorreko administrari lanpostua betetzeko oposaketa deialdiaren lehenengo froga, euskarakoa, datorren azaroaren 2an izango da, goizeko 9:30ean, Kultur Etxean. Froga hau ez dute egin beharrik izango aurrez zehaztutako frogagiriak aurkeztu dituzten guztiek.

● Kirol elkarteei zuzenduriko diru-laguntzak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak aditzera eman nahi du, Elgoibarko kirol elkarteek diru-laguntzak jasotzeko dokumentuak aurkezteko epea, urriaren 31n bukatuko dela. 98ko laguntzak jaso ahal izateko kirol elkarte bakoitzak urteko txostena aurkeztu beharko du Olaizaga Kiroldegian aipatutako epea baino lehen.



LAN ESKAINTZA

BARREN *astekarian*

ZUZENDARIA eta KAZETARIA behar dira

ZUZENDARIA - ESKATZEN DA

- Kazetaritzan lizentziatua edo komunikabideetan esperientzia
- Lantaldeak koordinatzeko gaitasuna eta komunikaziorako dohaia
- Euskara maila altua (ahoz eta idatziz)
- Gida-baimena eta autoa

KAZETARIA - ESKATZEN DA

- Kazetaritzan lizentziatua edo ikasketak amaitzeaz edukitzea
- Euskara maila altua (ahoz eta idatziz)
- Gida-baimena eta autoa

BALORATUKO DA (kasu bietan)

- Argazkigintza mundua ezagutzea eta Elgoibarren bizitzea.

ESKAINTZEN DA

- Zuzendaria: 8 orduko lan-kontratua (urtebeterako/ 4 urtera luzatzeko aukerarekin)
- Kazetaria: 6 orduko lan-kontratua (urtebeterako/ 4 urtera luzatzeko aukerarekin)

Izena emateko azken eguna: **AZAROAREN 13a (ostirala)**

Curriculum-ak eta informazio gehiago: **Elgoibarko Izarra K. I. Ubitarte 4, behea (Tel. 943 74 16 26)**

Udal zerga gehienak %2 igotzea onartu zen plenoan

1999an izango den igoera honi esker 12.981.000 pta. gehiago batzea espero du Udalak

Joan den ostiralean, hilak 23, 1999rako ordenantza fiskalen igoera onartu zen plenoan. Gobernu Batzordeak (PNV/EA/PSE-EE) 31 puntuz osatutako proposamena aurkeztu zuen herritarrok ordaintzen ditugun zergei, bere horretan mantentzen diren bat edo besteri kenduta, IPCaren

%2ko igoera aplikatzeko. Portzentaia hori baino gehiago igotzen den bakarra zaborren zerga da %2,7rekin. Isaak Loiola Haziendaburuak azaldu zuen bezala, "igoera-proposamen honen oinarria Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen finantziazioan eta hobekuntzan datza".

Plenoa hasi bezain pronto, igoeraren aurkako jarrera azaldu zuen HBko Pello Mendizabalek. "Presio fiskalari dagokionean, gehien ordaintzen duten Gipuzkoako herrien rankin bat egingo bagenu, Elgoibar 24. lekuan egongo litzateke. Zergak urtero igotzen dira, ez da sekula planteatu izoztearen aukera. Eta zergatik igotzen dira? Aldunditik diru gutxiago etortzen delako. Gure ustez, Udalak ildo horretatik egingo beharko luke lan. Gainera, kontuan izan behar da kontratu ebentuala duten herritar asko daudela eta horiek ez dute IPCaren igoerarik izango. Honez gain, herriko kolektiboek zeresana izan beharko lukete zergen igoera erabakitzen denean".

Uraren zergari buruz luzaro jardun zuen HBk. "Ados gaude minimoa 25 m3tik 20ra jaistearekin. Ondo iruditzen zaigu, baita ere, IUko Ausinen proposamena: ura hondasuna kontsideratzea eta aurrezteko moduak bultzatzea. Aitzitik, ez gaude ados Ur Kontsorzioari ordaintzen zaionarekin. Diru asko jasotzen du Kontsorzioak baina zer eskaintzen duen ez dugu oraindik ikusi".

IU-EE alderdiko J. Ignacio Ausinek zirkulazio zergaren igoeraren kontra dagoela adierazi zuen. "Ez da bidezkoa igoera bera aplikatzea lanerako erabiltzen den furgoneta bati edo luxuzko Mercedes bati". Era berean, hondasun inmiebleen zergaren igoera bi aldiz kobratzen dela gaineratu zuen. "Lehen-



Mankomunitateak ezartzen duenaren arabera, %2tik gorako den zerga zabor biltzetarena da, (%2,7).

dabizi balio katastralari %2a aplikatzen zaio eta ondoren, hondasun inmiebleen zerga kobratzerakoan, beste %2 gehiago ordaindu behar izaten dugu. Beraz, igoera bikoitza da".

PPko Juan Carlos Abianek %2a igo beharrean, %1,8 igotzea planteatu zuen, "Madrilgo Gobernuak IPCa %1,8 igoko dela uste duelako". Isaac Loiolak azaldu zuenez, "1999rako igoera-proposamena gure aurrekontuaren araberakoa da, eta Udalaren egoera ekonomikoa aintzat hartuta diseinatu dugu". Bestalde, HBri erantzunez, Aldundiaren fondoaren gorabeherak Legebiltzarrean erabakitzen direla gogorarazi zuen, "eta bertan erabakitzen denari men egingo diogu guk", gaineratu zuen.

Ondoren 31 puntuko proposamena botatu eta onartu zen. Esan bezala, orokorrean %2 igoko dira zerga gehienak. PNV, EA eta PSEk alde botatu zuten puntu guztietan. IU-EEK aldeko botoa eman zuen zenbait kasutan. PPK eta HBk zergak bere horretan mantentzen ziren kasuetan, abstenitu edo alde botatu zuten.

Zenbait zergaren prezio berriak

1- Ibilgailuak:

- ▶ 8 zaldi baino gutxiagoko ibilgailuak: 3.130 pta.
- ▶ 8-12 zaldi bitartekoak: 8.445 pta.
- ▶ 12-16 zaldi bitartekoak: 17.825 pta.
- ▶ 16 zalditik gorakoak: 22.205 pta.
- ▶ Garabiarekin autoa erretiratzea: 8.000 pta.
- ▶ Garabiarekin motorra erretiratzea: 4.950 pta.
- ▶ Tona bat gorako ibilgailuak erretiratzea: 12.105 pta.
- ▶ Zepoa ipintzeagatik: 2.840 pta.

2- Leku publikoaren okupazioa:

- ▶ Aulkiak eta mahaiak jartzeagatik: 669 pta/m2 urtean

3- Ura:

- ▶ Etxeko kontsumoa: 57 pta.tik 71ra bitartean m3 bakoitzeko, kontsumoaren arabera.
- ▶ Industrialak: 104 pta./m3
- ▶ Komertzialak: 70 pta.tik 91ra bitartean m3 bakoitzeko.

4- Zabor biltzeta:

- ▶ Etxebizitzak: 6.800 pta.
- ▶ Dendak eta profesionalak: 20.380 pta.tik 40.752 pta.ra bitartean.
- ▶ Banketxeak, asegurutxeak etab.: 33.932tik 82.284ra bitartean.
- ▶ Jatetxe eta supermerkatuak: 54.308tik 123.240ra bitartean.
- ▶ Tabernak: 33.932tik 47.532ra bitartean.
- ▶ Industriak, biltegiak etab.: 40752tik 135.772ra bitartean.
- ▶ Elkarrekin gastronomikoak: 33.932tik 53.220ra bitartean.
- ▶ Kirol/kultur elkarteak: 20.380 pta.
- ▶ Dantzalekuak: 88.260 pta.

Juan Rodriguez 50 urteko soraluzetarra da baina duela 16 urte Elgoibarren bizi da. Komertziala lanbidez, berarekin hitz egitearen arrazoia oso bestelakoa izan da. Juan Rodriguez 1993 eta 1995 urteetan Ruandan izan zen misiolari batzuekin eta oraindik ere, ahal duen neurrian, hemendik kolaboratzen jarraitzen du. Eguntan, Elizako Misio Taldea Ruandara bidaltzeko betaurrekoak jasotzen ari da eta Juan tartean dabil.

JUAN RODRIGUEZ

“Misiolaria izatea gustatuko litzaidake”

- Nondik datorkizu Ruandarekiko interes berezi hori?

- Nik seminarioan ikasituen garai batean eta han oso irakasle onak izan nituen. Seminarioa laga eta gero harremana mantendutuen eurekin eta gaur egun Ruandan daude, urteak daramatzate bertan. Asko hitz egiten zidaten Ruandaz eta 1993an, hilabete eta erdi pasatzera joan ginen bertara. Erlezaina den lagun batekin joan ginen erlezaintzaren inguruan lan egitera.

- 1995ean berriz joan zinen.

- Bai, 1994ko gerraren ostean, azken genozidioa eta gero, Eusko Jaurlaritzak eskaini zuen atuna, latetan sartu eta hegazkinez eraman genuen bertara. Ebakuntzarako materiala, Land Rover-ak eta abar ere eraman

genituen, fax-a eta telefonoa jarri genituen satellite bidez.... Gerraren ondorioz guztia erabat suntsitua zegoen, eta etxeak berreraikitzen ere lan asko zegoen. Han dauden misiolarien lana ez da pastoralak bakarrik, beste arlo askotan euren laguntza eskaintzen diete herritarrei, behar dutenei.

- Nola laguntzen duzu hemendik?

- Harreman zuzena daukagu han dauden misiolariarekin eta haiek behar dutena esaten digutenean, ahal dugun neurrian laguntzen dugu. Orain, Elizako Misio Taldearen bidez, betaurrekoak jasotzeko kanpainan gaude sartuta. Azaroaren 10era arte, behar ez diren betaurrekoak eman ditzatela eskatzen dugu.

- Betidanik izan al duzu sentsibilitate berezia gai

hauekiko?

- Baietz uste dut. Izan ere, beti esan izan dut misiolaria izatea gustatuko litzaidakeela. Niretzat Ruandara joatea oso aberasgarria da. Gustura bizi naiz haiekin laguntzen. Txip-a erabat aldatzen zaizu.

- Zein da egoera?


- Ruanda etorkizunik gabeko herria da. Gaixo terminala balitz bezala, irtenbiderik ez dauka. 150.000 pertsona baino gehiago daude gartzeletan, eta han hiltzen dira. Metro karratu gutxiko ziegetan ehundaka pertsona sartzen dituzte eta han bizi dira, tente, ez dagoelako lekurik eseri edo etzateko. Bizirik irautea eguneroko borroka da, ez dute ilusiorik ezer lantzeko, badakitelako edozein unetan norbait joan eta dena lapurtu edo hondatuko dietela... Aberastasunik ez duen herrialdea da, eta ez zaio inori interesatzen. Petrolioia izango balu, gauzak beste modu batera izango litrateke.

- Oso ezkorra zara, ezta?

- Egoera latza da, errealista izan behar da. Huetuek, gehiengoak izan arren, gerra galdu zuten eta benera egoera txarrean bizi dira. Tutsi-ak dira agintea dutenak, ikasketa gehien dituztenak, ondoen prestatuak daudenak... Halere, herritar xeheen artean ez dago gorrototik, orain arte bikote mistoak zeuden... Agintea dutenen arteko arazoa da batez ere, baina guztiek sufritu behar dute. Konponbiderik ez duen arazoa da. Etnien arteko gatazka. Guk, bertan bizi direnei laguntza eskaini behar diegu, bizitza ahalik eta onena izan dezaten.

BESTEAK ESANA

“Bere kezkek eta eskuzabaltazunak birritan eraman dute Afrikara, eta ez da azkena izango. Oso mutil jatorra da” SABIN ETXANIZ, laguna.





**Ane
Iriondo**

Ane Iriondo duela hiru urte joan zen Londresera. Idazkaritza ikasketak amaitu eta ingelesa sakontze aldera, 6 hilabete pasatzeko asmo-

arekin joan zen. Hemengo agentzia baten bidez hotel batean hasi zen lanean. Zeregin honetan aspertu eta Mc Donald's batean lan egiteari ekin zion. Beranduago beste lan batzuk ere egin zituen: Londresko enplegu bulego batean ofizinako lan bat topatu zioten. Gaur egun hala ere, beste lan batean ari da. Udaz geroztik Londresko Central Hispano banketxean ari da, idazkari moduan. Konturatu gabe, hiru urte pasatu ditu bertan, beti ere ingelesa sakondu eta perfektionatzeko helburuarekin. Hasierako uneak gogorrak izan baziren ere, gaur egun daukan lanean gustura dabilela esan digute Aneren etxekoek.

Londres gogokoa duela jakin dugu. Bere asmoa beste urtebete edo bi urte bertan pasatu eta esperientzia nahikoa hartu ondoren, Elgoibarrera bueltatzea da.

Elgoibarrera sarritan etorri ohi da. Azken aldiz urriaren 12ko jai-zubian izan zen, etxekoak eta lagunak bisitatzen. Gogorra egiten zaio behin Elgoibarren egonda Londresera alde egitea, baina... Hala ere, Gabonetan etxera etorriko da, urterot egin ohi duen bezala.



VIAJES **BILBAO EXPRESS** B. SAIAK

**bidaiak agentziak
babestutako atala**

Foruen plaza, 3
Tel: 943 74 39 12

**Josefa
Elizburu
Eguren**

(1896-1968)



- 1896ko otsailaren 26an jaio zen Plazentziako Larreategi baserrian. 4 anai-arreba ziren, gazteena bera.
- Baserrian bizi izanik, Joxepak ez zuen eskolara joateko aukerarik izan. Etxeko, baratze eta soroko lanak eginez familiari laguntzen ahalegintzen zen.
- Joxepak 12 urte zituenean, familia osoa Elgoibarko San Pedroko Urkiola Txiki baserrira etorri zen. Urte askoan lan mordoa egin zuen baserrian: etxeko baratzean, mendian, goizean goiz Elgoibarko azokara asto gainean esnea saltzera,...
- Gazte guztiek bezala, erromerietara joatea gogokoa zuen, San Migel, San Pedro eta inguruko auzoetara. Hura pena hartzen zuena Joxeparen kuadrilak soinurik ez zegoenean!
- Domingo Agirregomezkortarekin ezkondu zen, San Lorentzoko Unastegi-errota baserrira. 6 seme-alaba izan zituzten.
- Etxean, baratzean, garotan, egurra eramaten eta beste zeregin askotan lan mordoa egitea tokatu zitzaion emakume langile honi. Baserrian zuten errotan ere lan handia egin zuen. Gerra sasoiaren estuasun bat baino gehiago pasatu zituen eta errota prezintatu ere egin zioten.
- Asko gustatzen zitzaizkion San Lorentzoko jaiak. Baserria gonbidatuz betetzen zitzaion jaiak heltzen zirenean.
- Emakume ezaguna, borondatetsua, atsegina, hizlaria, sinesmen handikoa eta lehengo ohituen jarraitzailea zen. Arropa josten zuen eta bere ahots politarekin euskal kantak abesten zituen.
- 1968ko urriaren 27an hil zen 74 urterekin.

Juanito Gorostiza

**HERRI-GAİN
ERRETEGIÀ**

San Pedro auzoa, 4
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR

Truk

**San Frantzisko, 27
Tel. 943 74 26 21**



Argazki hau **Juanito Gorostizak** inguratu du. 1922. urtekoa da, Don Antonio Arrillaga alkate aukeratu zuten urtekoa.

Esan digutenez, Don Antonio oso eskuzabala zen eta ohitura zeukan lagunak eta ezagunak gonbidatzeko. Argazkian agertzen direnak Pakita Irusta, Don Antonioren ilobaren kuadrilakoak dira, eta itxura denez, Don Antoniok kuadrilari egin zion gonbidapen baten bueltan atera zuten erretratua. Bertan azaltzen diren guztiak hilda daude Alberta Etxaniz izan ezik.

Atzetik hasita, ezkerretik eskumara: Eusebia Larrañaga 'Goikorrota', Isabel Larreategi 'Agarretxiki', Ascension Etxaniz 'Sastrekua', Benita Ulazia 'Gartxon', Luisa Albisu eta Pepita Ibieta 'Gurpil'.

Erdiko ilaran: Angeles Urkiri Barrutia 'Goikorrota', Alberta Etxaniz 'Sastrekua', Olegaria Larrañaga 'Goikorrota', Melchora Etxeberria, Concepción Uribetxeberria, Felisa Unuzueta 'Moskote' eta Bitxori Gurrutxaga 'Ola-sarra'

Aurreko ilaran: Maria Albisu, Luisa Abascal, Beatriz Aizpiri, Don Antonio Arrillaga, Pakita Arrillaga, Kari de la Cruz eta Juanita Albisu.

Olaizaga Kiroldegiak 10. urteurrena ospatuko du zapatuan, hilak 31

Urtean zehar egiten diren jarduerak erakusteko jaialdia antolatu dute

Olaizaga Kiroldegiak jaialdi batekin ospatuko du 10. urteurrena. Zapatuan, hilak 31, izango da eta arratsaldeko 17:00etan hasiko da. Urtean zehar Patronatuak antolatzen dituen jarduera guztien erakusketa egingo da, 200 bat lagunek parte hartuko dutelarik. Saio bakoitza 10 bat minutuz luzatuko da. Elgoibartar guztiak daude jaialdira gonbidatuta eta ez da sarre-rarik kobratuko.



Jaialdiaren asmoa Udal Kirol Patronatuak eskaintzen dituen hainbat jardura nola-koak diren erakustea da. Ramon Mujika, Patronatuko zuzendariak esan bezala, “klase arrunt bat izango balitz bezala arituko dira ikasleak: beroketa, ariketak, luzamenduak etab. nola egiten dituzten azalduko digute”. Haritz Dantzari Taldeak emango dio hasiera jaialdiari Kiroldegian egiten duten entsaioa erakut-

siz. Segidan jubilatuen gimnasiaren txanda izango da. Ondoren, gimnasia erritmikoa, salsa, step-fitness, karatea eta aerobika.

Alberto Berasategi tenista, Elgoibarren

Jaialdi hau urteko ekitaldi nagusia izango da. Hala ere, Udal Kirol Patronatuak zerbait berezia egiteko asmoa dauka urtero. Kirol jakin bat oinarritzat hartuta, txapelketa bat antolatuko da. Txapelketaren jardueren barruan,

jaialdi moduko bat antolatu-ko da eta kirol horrekin zerikusia duten hainbat pertsonaia ekarriko dituzte. “Aurten, esaterako, Elgoibarko I. Tenis Txapelketa jokatu-ko da azaroaren 7tik aurrera eta 14 urtetik gorakoek hartuko ahal izango dute parte. Abendua- ren 20an, domeka, Alberto Berasategi tenista bizkaitarra, J. Antonio Conde tenista eta Tomas Olmo elgoibartarra etorriko dira. Azken hau, Arantxa Sanchez Vicarioren prestatzaile fisikoa da. Do-

meka goizean zehar, tenis zaletuek aipatutako hiru tenista horiekien jokatzeko aukera izango dute”. Txapelketan parte hartzeko 500 pta. ordaindu behar dira eta 943 74 44 15 zenbakira deitu izena emateko. Aurten tenisa bada aukeratutako kirola, datorren urtean beste baten txanda izango da.

2.215 bazkide

Olaizaga Kiroldegiak 1988an ireki zituen ateak. Gaur egun 2.215 bazkide ditu eta urtean zehar eskaintzen diren jarduerak 17 dira, guztira 550 lagunek hartzen dutelarik parte. 1996an Udal Kirol Patronatua sortu zen eta Kiroldegiko gestio pribatua Udalaren eskuetan geratu zen. “Azken bi urteotan bazkide kopurua handitu dugu, gero eta jende gehiagok erabiltzen ditu gure instalazioak eta eskaintzen diren jarduerak gehitu egin dira”.

Alex Calvo elgoibartarra, Gipuzkoako taekwondo txapeldunordea

Ibai Kirol Elkarteko 4 ikaslek urriaren 18an Donostian izan zen Gipuzkoako I. Taekwondo Txapelketan parte hartu zuten estreinakoak. Alex Calvo bigarrena izan zen 80 kg baino gehiagoko pisuan. Hala ere, bere irakaslearen iritzi- ziz, “esperientzia piska bat gehiago eduki izan balu, Gipuzkoako txapelduna izango litzateke”. Gainerantzeko el-



goibartarrak honako hauek izan ziren: Oscar Martin eta Juan Manuel Angulo (4. postua) eta Alex Valero (5. postua). Argazkian, aurrez aurre Alex Calvo. Arerioa Oscar Martin da.

ESKOLARTEKO KIROLAK

AGENDA (urriaren 31a, 3. jardunaldia)

SASKIBALOA (Herri Eskolan)

- Benjamin mutilak ■
- 10:00 Mendaro A - Pilar B
- 11:00 Pilar A - Ikastola A
- 11:30 Herri Eskola A - Ikastola C
- 12:30 Herri Eskola B - Ikastola B
- Benjamin neskek ■
- 10:30 Ikastola B - Ikastola A
- 12:00 Pilar B - Ikastola C

ESKUBALOA (Kiroldegian)

- Alebin mutilak ■
- 9:00 Mendaro A - Pilar A
- 9:45 Pilar B - Mendaro B
- 10:30 Deba Urdinak - Jauja A
- 11:15 Deba Gorriak - Ikastola A
- 12:00 Herri Eskola - Ikastola C

ESKUBALOA (Ikastolan)

- Alebin mutilak ■
- 11:15 Deba Berdeak - Ikastola B
- Alebin neskek ■
- 9:00 Ikastola B - Pilar B
- 9:45 Ikastola A - Jauja E
- 10:30 Deba Horiak - Jauja D
- 12:00 Pilar A - Ikastola C

FUTBOLA (Mintxetan)

- Infantil mutilak ■
- 11:00 Insti A - Deba
- 11:45 Ikastola - Insti B
- 12:30 Pilar A - Pilar B
- Infantil neskek ■
- 10:00 Pilar B - Ikastola A
- 10:45 Pilar A - Mutriku
- 11:30 Ikastola E - Ikastola B
- 12:15 Ikastola D - Ikastola C

Elgoibarko areto futbolak 10 urte bete ditu

Duela 10 urte sortu zen Elgoibarko areto futboleko kluba. Denboraldia hasi zenetik 10. urteurrena ospatzen ari dira. Izan ere, hilean behin, etxean jokatzeko duten partiduan, taldeko kide ohi batek ohorezko saka egiten du. Joan den ostiralean duela 10 urteko taldean izan zen kide bati tokatu zitzaion. Hurrengoan, duela 9 urte areto futbolean jokatu zuen beste kide baten txanda izango da.


Areto futboleko kluba talde bakarrarekin hasi bazen ere, handik gutxira bigarren talde bat sortu zen. Urtez urte kategoriaz igotzen joan dira eta iaiztik talde bat 1. mailan dago eta bestea maila autonomikoan. Hona hemen bi taldeak.

Autonomikoa



Zur Ta Lur Elgoibar F.S./autonomikoa. Zutik, ezkerretik hasita: Xabi Alberdi, Mikel Leon, Mitzel Gil, Oscar Díez, Rafa Alberdi eta Jon Pozuelo entrenatzailea. Makurtuta: Enrike Rodriguez, Antonio García, Ignacio Alberdi, Agustin Valenciaga eta Hector Garrido.

1. maila



Zur Ta Lur Elgoibar F.S./1. maila. Zutik, ezkerretik hasita: Gorka Mujika, Andres Valenciaga, Fran Boo eta Jose Ramon Uriarte entrenatzailea. Makurtuta: Iñigo Etxaide, Joseba Arrillaga, Pedro Galarraga eta Roberto Córdón. Arzakian falta direnak Gorka Sastre, David Mekolalde, Ivan Garrido, Gorka Azpilikueta, Manu Rey eta Gorka Merino dira.

EMAITZAK

Futbola

Zaragoza 2 - Haundi 1
Elgoibar 4 - Euskalduna 0 (1. erreg.)
Elgoibar 11 - Eibar 0 (1. jub.)
Elgoibar 2 - Urola 0 (Neskak)
Pedrusko 2 - Gazteak 0 (2. erreg.)
Aurrera 0 - Haundi 6 (Kopako partidua)

Futbitoa

Menisco 0 - Los Herminios 3
Kunta Kinte 5 - Aide Globun 2
Berrogei Duro 1 - PSK 2
S. Braga 4 - Aizkorak Mendibil 2
Lojantzi 5 - Los Peñaskos 2

Areto Futbola

Zur Ta Lur Elg. 3 - Pas. Agirre 1 (1. maila)
Zur Ta Lur Elg. 8 - Astilleru 3 (Auton.)

Pilota

Gipuzkoako txapelketa

Aretxabaleta 22 - lagunak 20 (Jub.)
Aretxabaleta 6 - Lagunak 22 (Juniorrak)
Aretxabaleta 22 - Lagunak 12 (Nagus.)
Soraluze 22 - Lagunak 6 (Gazteak)

Idarra Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 98/99
JOKALARIA PUNTUAK

1- Eneko	19
2- Beitia	18
3- Aitor Trebiño	13
4- Iker Leonardo	11
5- Elkoro	9
6- Txasio	7
7- Igor	7
8- Muguruza	6
9- Loren	5
10- Caro	5
11- Diaz	4
12- G. Leonardo	4
13- Madina	3

AGENDA

Futbitoa, Kiroldegian

Igandea, 1
9:00 PSK - Lojantzi
10:00 Aide Globun - Berrogei Duro
11:00 Aizkorak Mendibil - Kunta Kinte
12:00 Los Herminios - S. Braga
13:00 Los Peñaskos - Menisco

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 31
17:00 Haundi - Gimnástica
Igandea, 1
10:30 Elgoibar - Bergara (Inf.)
12:15 Elgoibar - Almen (Kad.)
16:00 Elgoibar - Zarautz (1. jub.)

Eskubaloia, Azkoitiko kiroldegian

Igandea, 1
10:00 IMH Elg. - Urola (Senior mut.)

Pilota, Ikastolako frontoian

Gipuzkoako txapelketa


Ostirala, 30
22:30 Elgoibar - Azkoitia (Jub.)

Tangoaren Astea

Zinea, musika eta dantza ikuskizuna antolatu dute

Ongarri Zine Klubak eta Haritz Dantzari Taldeak

Datorren astean, azaroaren 5ean eta 6an, hain zuzen, Arjentinako izaeraren erakusgarri nagusia den tangoari eskainitako bi emanaldi ikusteko aukera izango da Elgoibarren. Haritz Dantzari Taldeak eta Ongarri Zine Klubak tangoari buruzko zine emanaldia eta musika-dantza saioa prestatu dituzte. Azaroaren 5ean, Carlos Saura zinemagile ezagunaren 'Tango' pelikula emango da Herriko Antzokian gaueko 22:15ean. Hurrengo egunean, azaroak 6, Haritz Dantzari Taldearen eskutik, saio musikala izango da, Herriko Antzokian gaueko 22:30ean. Euskal Herriko bost musikari ezagunek tangoak joko dituzte eta tartean, Irungo bi dantzarik tangoak dantzatuko dituz-



te. “Ongarriko eta Haritz Dantzari Taldeko kideok ilusio handiz antolatu dugu Tangoaren Aste hau. Sauraren pelikula ekartzeko aukera ez da azken ordura arte konfirmatu baina azkenean saio bat bestearen jarraian prestatzeko aukera suertatu da eta jendeari asko gustatuko zaion ilusioa daukagu”.

Jose Inazio Sarasuak esan digunez, “*Tangoneando* ikuskizunean parte hartuko duten musikariak benetan onak dira. Batetik, Arjentinako burdeletako tango tradizionalak, Gardel mitikoaren abestiak hain zuzen, eta bestetik, Parisen arrakasta lortu zuten Piazzolaren tangoak entzun ahal izango ditugu”. Azken honen doinuak tango modernoaren erakusgarriak dira.

Unicef publia



Gorka Regil:

“Perkusioa ez dago batere baloratuta”

Gorka Regil 23 urteko gazte elgoibartarra da. Txikitan, tanborra jotzen ikasi zuen eta gaur egun, musika ikasketak bukatuta, Gasteizko Udal Txistulari Taldeko kidea eta Udal Folklore Akademiako irakaslea da. Perkusioan espe-

zializatua, musikaren aldeko apostua egin zuen gaztetan, nahiz eta ez zela batere erraza izango jakin. Afizioa ofizioa izatea lortu du eta bere helburua banda profesional batean jotzea litzateke. Ea zor-terik duen.

- Zazpi urterekin sartu zinen musika munduan, ezta?

- Bai. Ikastolan neuala, aile-gau zan karta bat esanez Txistulari Akademixan bihar ziala txistua eta tanborra jotzen ikasi nahi zabenak. Nik izena eman naban tanborra jotzeko eta hola hasi nitzan. Gero, Donostin jarraitu nitxun ikasketak eta irailian amaitxu dot, musikako goi maila lortuz.

- Ez al zizun beldurrik ematen etorkizuna musikatik bideratzeak?


- Bai, ze jende askok nahiz eta musika ikasi, gero moduloren bat itxen zaban lanerako preparatzeko. Hala ere, lelen-go, musika ikasketak bukatu eta gero, lanik ez banaban topatzen, FP edo moduloren bat ingo nabala pentsau naban.

- 23 urte bakarrik dituzu baina esperientzia asko.

- Bai. Musikeskolako ixa talde guztietatik pasau naiz: orkestia, bandia, txistulari taldia, akordeoi orkestia... Mauxitxa txarangan ere banabil. Jose Luis Morenok ETBrako itxen zaban programako orkestan parte hartu naban...

- Gaur egun Gasteizko Udaletxean zabilta.

- Bai. 1991ko udan irakurri naban iragarki bat esaten zabana Gasteizen bihar zebela pertsona bat Udal Txistulari Talderako. Izena eman naban eta oposaketak etara nitxun. Hasieran egun erdiko kontratua nakan baina oin egun osokua da. Egun erdiz Txistulari



taldian nao eta gainontzeko denboria Udal Folklore Akademian klasiak ematen pasatzen dot.

- Zer da Udal Folklore Akademia hori?

- Euskal Herriko instrumentuak jotzen erakusten da: txalapartia, txistua, trikitixa... Holako akademia gitxi daude Euskal Herrixan. Gu 17 irakasle gera eta 1.000 ikasle ditzugu.

- Pozik, beraz.

- Bai, oso gustura nao. Hasieran nahiko agobiatzen nitzan, ze urte osua pasatzen naban Gasteizera jun, gero Donostira klasera, Orixon klasiak ematen nitxun... Oin, asteartetik ostegunera Gasteizen pasatzen dot eta gainontzeko egunak Elgoibarren. Larunbatetan ezkontza zibilak itxen dia Gasteizen eta alkatiari okurritxu jakon politxa izango zala eratzunak jarri aurretik Agur Jaunak jotzia eta han egoten gera. Rezepziuak egoten dia, akto protokolariuak... Beti dao zeozer.

- Irakaskuntza gustatzen al zaizu?

- Gustura nao baina jendiak ez dau atenzio asko jartzen. Ez ditzuzu emaitza haundixak ikusten, akademixia izaterakuan ez da hain serixo hartzen. Gainera, askok pentsatzen dabe erreza dala eta...

- Perkusioa gutxi baloratzen al da?

- Bai. Badirudi tontoena bonboa edo txapak jotzen dituen dala, errazena izango balitz bezala. Baina perkusioa ez da ematen daban bezain erretza, badaka bere zailtasuna eta hori ez da baloratzen.

- Zein musika entzuten duzu etxean?

- Egixa esan ez dot musika gehixgi entzuten. Musikia ez jata gustatzen egunian 24 ordu hor sartuta egoteko. Nahixao dot denboria gauza desberdinak itxen pasatzia.

**INTERESEKO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak 943 461111
Txanda hartzeko . . . 943 743354
Planning-a 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
D.Y.A (anbulantzia) . . . 943 464622
Gurutze Gorria 943 743864
Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
Odol Emaileak 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
Udal Kirol Patronatua 943 744415
Kultura Zerbitzua 943 742158
Mendaroko Udala 943 756100
Ongizate zerbitzua 943741008
Udaletxea 943 741050
Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
Kiroldegia 943 744415
Kontsumo Bulegoa 943 743088
Liburutegia 943 743525
Musika Eskola 943 742145
Mintxeta 943 744315
Parrokia 943 740842
Postetxea 943 741547
Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEA

Haur Eskola 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre 943 74 02 67
Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80
Ikastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
El Diario Vasco 943 74 40 73
El Correo Español . . . 943 74 10 82
Egin 943 10 84 21
Zazpiki Irratia 943 74 34 74

30

ostirala

22:15 ZINE KLUBA
"Marius et Jeannette"

22:30 ANTZERKIA

Antzezlanak:
"Geure buruari kuku"
Antzeztaldea: Goaz (Deba)
Gaztetxean

31

larunbata

11:30 URRUZUNO
LITERATUR
TALDEAREN BILERA
BARRENen

15:00 AKANPADA
KARAKATEN
Irteera Plaza Handitik
Antolatzaileak: Morkaiko
M. E. eta Gazte Asanblada

17:00 KIROLDEGIKO
10. URTEURRENEKO
JAIALDIA

Olaizaga Kiroldegian
Antolatzailea:
Udal Kirol Patronatua

19:30-22:15 ZINEA
"Dr. Dolittle"

1

igandea

9:00 KARAKATERA
MENDI-IRTEERA
ERREIBINDIKATIBOA
Irteera Plaza Handian
Antolatzaileak: Morkaiko
M. E. eta Gazte Asanblada

16:30-19:30-22:15 ZINEA
"Dr. Dolittle"

20:00 REGGAE JAIA
King Mafrundi eta
Radici Nel Cemento
Gaztetxean
Antolatzaileak: Morkaiko
M. E. eta Gazte Asanblada

2

astelehena

22:15 ZINEA
"Dr. Dolittle"

3

asteartea

19:00 GURUTZE
GORRIKO ASTIALDI
TALDEKO HAURREN
ERAKUSKETA
Kultur Etxean
Azaroaren 11ra arte
Antolatzailea: Gurutze
Gorriko Astialdi Taldea

5

osteguna

22:15 ZINE KLUBA
"Tango"

6

ostirala

22:30 MUSIKA eta
DANTZA SAIOA
Izenburua: 'Tangoneando'
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Haritz
Dantzari Taldea

ZINEA



Dr. Dolittle

John Dolittle medikua da eta egun osoa kirofanoan pasatzen du. Behin, gauez autoan etxera bueltan doala, kaleko txakur bat harrapatzen du. Txakurrak erretolika ederra botatzen dionean, aspaldi galdutako trebetasun bat duela konturatzen da medikua: animaliekin hitz egiteko gaitasuna, alegia. Aurrerantzean bestelako gai-
xoak hasiko zaizkio kontsultara joaten: zaldiak, usoak, untxiak bai eta bere buruaz beste egin nahi duen tigre bat ere.

Zuzendaria: Betty Thomas.
Antzezleak: Eddie Murphy,
Oliver Platt, Ossie Davis.

● Gurutze Gorriko Gazteen Aisialdi Taldeko haurren erakusketa

Azaroaren 3tik 11ra bitartean, Gurutze Gorriko Gazteen Aisialdi Taldean parte hartzen duten haurrek erakusketa egingo dute Kultur Etxean. Astebetean haur hauek egindako 30 lan ezberdin ikusgai egingo dira, eskulanak, marrazkiak etab. Urtean zehar 25 bat haur ibiltzen dira Gurutze Gorriko Aisialdi Taldeak antolatutako tailerretan eta epe honetan egindako lanak dira erakutsiko dituztenak. Erakusketak asteartean, arratsaldeko 19:00etan irekiko ditu ateak.

Aisialdi Eskolaren hasiera

Azaroaren 7an, arratsaldeko 16:30ean Gurutze Gorriko Gazteen Aisialdi Taldearen ikasturte berria hasiko da. Gurutze Gorriko arduradunen esanetan, "mendarotarrak animatu nahi ditugu batez ere, 10 lagun bilduz gero, taldea osatuko baigenuke bertan. Gainera, euskaraz eta doan aritzen garela gogorazi nahi dugu". Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 38 64ra deitu (Mikel edo Amelia).

● Emakumearen egoera aztertzekeo tailerra

Haizea Emakume Taldeak datozen azaro eta abendurako azterketa eta erreflexiorako tailerra antolatu du. Emakumearen prozesua aztertuko dute eta konkretuki, arlo hauek: emakumearen gaur egungo egoera etxean, gizartean, lanean,... eta emakume bezala lortu nahi dituzten helburuak; emakumearen garapena lortzen lagundu ditzaketen faktoreak, bereganatu behar dituzten arloak, etab.

Azterketa eta hausnarketaren bidez emakumearen errealitatea, iritzia eta egoera ezagutu nahi dira, bai orokorrean bai Elgoibarren. Tailerra herriko emakume guztiei zuzendua dago eta 'Hezitzen' Elkartea izango da asteroko bilerak antolatuko dituena. Bilerak ostegunero izango dira arratsaldeko 15:00etatik 16:30era Haizea Elkartean lokaletan (P. Muguruza ikastetxea). Egitasmoari amaiera emateko, pelikula baten proiektzioa antolatuko dute Haizeak eta Ongarri Zine Klubak elkarlanean. Tailerra azaroaren 5ean hasi eta abenduaren 11n amaituko da. Izena emateko Haizeako egoitzatik pasatu.

● Karakate-irukurutzetako parke eolikoaren aurkako ekitaldiak

Elgoibarko Gazte Asanbladak eta Morkaiko Mendizale Elkartek, eskualdeko beste kolektibo batzuekin batera, Karakate eta Irukurutzeta bitartean eraiki nahi duten parke eolikoaren kontrako ekintzak antolatu dituzte. Larunbatean, hilak 31, akanpada egingo da Karakate eta Atxolin bitartean. Irteera arratsaldeko 15:00etan izango da Elgoibar, Soraluze eta Azkoitiko plaza nagusietatik. Iganderako, azaroak 1, mendi martxa erreibindikatioa antolatu dute. Irteera ordua goizeko 9:00etarako jarrita dago. Elgoibar, Soraluze eta Azkoitiko mendizaleek hartuko dute parte eta eguerdiko 12:00etan hitzaldia emango da Karakaten trikitiaz eta salda beroaz lagunduta. Erreibindikazio eguna amaitzeko, iluntzeko 20:00etan reggae jaia izango da Elgoibarko Gaztetxean *King Mafrundi* (Iparraldekoak) eta *Radici Nel Cemento* (Italiakoak) taldeen eskutik.

● AEK Eguna Legution

'Geu ere AEKrekin, Bai euskarari!' lemapean, azaroaren 8an AEK Eguna ospatuko da Legution (Araba). *Betagarri* eta *Lorelei* taldeen kontzertuarekin, trikitilari eta bertsolariekin, *Trikitixa Kontrario* taldeak AEKrentzat egin duen abestiarekin eta beste gauza askorekin gozatzeko aukera izango du nahi duen guztiak. Autobusa Sigmako zubitik, goizeko 9:45ean irtengo da. Izena emateko Oizmendi eta Karobi tabernetara edo AEK euskaltegira joan azaroaren 6a baino lehen (Aita Agirre, 3. Tel: 943 74 13 32).

T R A N D A H

FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
31	Bidasolo	Bidasolo
1	Bidasolo	Bidasolo
2	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
3	Anduaga	Anduaga
4	Yudego	Yudego
5	Zabaleta	Zabaleta
6	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

1 igandea Zabaleta

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Carlos Saura.
 Antzezleak: Miguel Angel Solá,
 Cecilia Narova, Mía Maestro.

Tango

Krisi sentimentala sofrizten ari den zinemagile batek tangoari buruzko pelikula batean topatzen du babesa. Pelikulan bere emazte-ohiak eta maitaleak dantzari papera egiten dute. Cannes-eko zinemaldian ikusleagoak eta kritikak go-raipatutako pelikula da. Vittorio Storaro argazkigintza zuzendariak sari bat jaso zuen aipatutako zinemaldian.

Etxebizitzak

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

◆ Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta 2 ume zaintzeko. ☎ 943 74 42 43

◆ Pertsona gaztea behar da informatikako tekniko bezala lan egiteko. Esperientzia baloratuko da. Interesatuak idatzi 8 postakutxatilara, Elgoibar.

◆ Neska behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Ahal bada, euskalduna. ☎ 943 74 45 87

◆ Mutila behar da mezulari lana egiteko. Gida baimenarekin. ☎ 943 74 40 54 (goizez)

◆ ESKAERA ◆

◆ Administrari eta komertzio ikasketak dituen neska lanerako eskaintzen da. ☎ 943 75 50 45

◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egin eta umeak edo zaharrak zaintzeko ☎ 943 75 50 45

◆ Bi gazte eskaintzen dira propaganda banatzeko ☎ 943 74 13 07 (arratsaldez)

◆ 38 urteko neska eskaintzen da gaixoak zaintzeko, bai ospitalean baita etxean gauzez ere. ☎ 943 74 31 75 (Carmen, goizez).

◆ Klinikak Laguntzailea eskaintzen da gaixoak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informameak ditut. ☎ 943 74 04 86 (Rosa)

◆ Neska eskaintzen da haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo tabernan aritzeko. Esperientziarekin. ☎ 910 685 295

◆ Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Esperientziarekin. ☎ 943 17 19 13

◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixo edo edadetuak zaintzeko, etxean edo/eta ospitalean, egunez nahiz gauzez. ☎ 943 74 27 78 (Itziar)

Garajeak

◆ Marradun garajea alokatzen da Urasandin, Kalamua kalean. ☎ 943 74 13 82

◆ Garajea alokatzen da, San Roke Sean. ☎ 943 74 11 61

◆ San Roke sarreran garajea alokatzen da. ☎ 943 14 17 22
943 12 01 82

◆ Apartamentua saltzen da Ezcaray-n. ☎ 944 95 05 37 (Charo edo Javi)

◆ Osasun kaxkarra duen senar-emazte nagusiak etxea hartuko luke alokairuan. Igogailuarekin eta merke. ☎ 943 74 03 37

◆ Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua, ganbareekin eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83
☎ 943 74 18 34

◆ Etxea salgai Mendaron. Sukaldea eta jangela guztiz ekipatuak (Vegasa eta AEG). 35 m2ko garajea eta 12 m2ko ganbara ditu. ☎ 943 75 62 43

◆ San Bartolome 2an, 4. solairuan dagoen 25 m2ko teilatupeko lokala salgai. 1,5 milioi pta. ☎ 943 20 30 83 (Arantxa)

◆ Logelak ditut alokatzeko. Urasandi kalean. ☎ 943 74 03 93

Salerosketak

◆ SALDU ◆

◆ Super Nintendo konsola saltzen da. Bi mando eta sei jolas ditu. ☎ 943 74 22 75 (Iñigo)

◆ Bodyboard bat saltzen da, Wave Rebel. Aletak Rip Curl eta 2x3ko traje motza. Merke. ☎ 943 74 38 76 (Ivan)

◆ Land Rover motza saltzen dut. Egoera onean eta merke. ☎ 943 74 06 88

◆ Bideo-konsola saltzen da. Super Nintendo, bi mandu eta zazpi jolasekin. ☎ 943 74 41 47

◆ Gazteen logelarako altzariak salgai, merke. ☎ 943 74 20 41

◆ Ford Orion 1.600 GHIA zuria saltzen da. 250.000 pta. Interesatuak galdetu Merkatu Plazako 22. postuan. (Ana)

◆ Kutxa forma duen ohe tolesgarria saltzen da. Pinuaren egurrez egina. Oso polita. ☎ 943 74 40 85

◆ Bi amplifikadore saltzen ditut. Bata baxuarentzat eta bestea kitarrarentzat. Prezio ona. ☎ 943 74 10 32

◆ Akuario handi bat salduko nuke. Ur berokoa. Guztiz ekipatua. Merkea. ☎ 943 74 15 16

◆ Sukalderako mahai biribila salgai prezio onean. ☎ 943 74 10 42

◆ Peugeot 205 GTi salgai. Estrak. ☎ 943 74 04 65 (Dani. Gauzez)

◆ EROSI ◆

◆ Judoko kimonoa erosiko nuke 7-8 urte dituen haurarentzat. ☎ 943 20 04 88

◆ Trikitixa bat erosiko nuke. 3 edo 4 ahotsekoa. ☎ 943 75 61 83

◆ Egoera onean dagoen bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. ☎ 943 76 56 78

Bestelakoak

◆ Mendaron bezero asko dituen taberna saltzen edo alokatzen da. ☎ 943 75 50 16

◆ Giltz bat topatu dugu Agirre sasterria parean. Galdu duenak Udaltzaingora jo dezala.

◆ Hilaren 21ean bi perikito galdu ziren Arregitorren. Urdina eta berdea ziren. Norbaitek topatu baditu dei dezala ☎ 943 74 37 57 telefonora.

◆ Caritas-ek kotxe kapota dauka emateko. ☎ 943 74 15 09

◆ Billar-erako takoa galdu dut maleta beltz eta guzti. Pegatina beltz bat du eta eskertuko nuke topatu duenak jakinaraztea, balio sentimental handikoa baita ☎ 943 74 24 90

◆ 23 urteko irakasle eslobakiar bantentzat bakarkako logela baten bila gabiltza, azarotik maiatzera arte. Premia dauka. ☎ 943 74 44 80 (8:00etatik 14:00etara, Ingeles Mintegia) edo 74 19 24. (15:30-22:00, Arantza).

◆ Gozoki denda zentrikoa traspasatzen da ezin delako atenditu. ☎ 943 20 36 92 (gauzez).

◆ Lokal berritua traspasatzen da Merkatu Plazan. ☎ 943 74 25 17 (gauzez)

◆ Agarre baserriko iturrian bastoi tolesgarria galdu nuen. ☎ 943 74 05 42

◆ Elkartea gastronomikoa izateko egokitutako lokala saltzen da Elgoibarren. Eskaerak bidali 277 P.Kra. 20800 Zarautz.

◆ Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio kalea) pisua osatzeko. ☎ 943 77 12 77

◆ 1970 urtean jaio eta Ikastolan ibili ginenon afaria Txarridunan izango da urriaren 31n. Malapen elkartuko gara arratsaldeko 18:30-19:00ak bitartean. Afaria 21:30ean izango da.

Agurrak

◆ Zorionak **Ainhoa**. Muxu potolo-potolo bat zure 25. urtebetetze egunean. M eta B.

◆ Zorionak **Jokin Salegiri** hilaren 25ean 9 urte bete zituelako. Familia osoaren partez, bereziki lehen-gusu-lehengusinen partez.

◆ Zorionak **Jon Garate** eta **Maria Idiakezi** gaur, hilak 30, urteak bete dituztelako. Ikastolako 6. mailakoen partez.

◆ Zorionak **Eneko Gomez** bere laugarren urtebetetze egunean, aitona-amona, osaba-izeba eta anaia Aitorren partez.

◆ Zorionak **Loli** eta **Ana Mariari** familia osoaren eta Iratxeren par-

◆ Zorionak **Xabier Lopez**-i hilaren 31n 9 urte beteko dituelako. Gurasoen eta Iñigoren partez.



◆ Zorionak **Oihane de la Fuenteri** gaur 7 urte bete dituelako. Gurasoen



eta ahizpa Naiararen partez.

◆ Zorionak **Andoni**, aitaxo, aitona-amona eta familia guztiaren partez. Musu handi



bat eta egun ona pasatu.

◆ Zorionak **Ion Garateri** bere 11. urtebetetzean aitaitza Txomin eta amama Pepi, osaba-izeba eta bereziki Mikelen



partez. Musu handi bat.

◆ Zorionak **Ion Etxanizi** gaur, hilak 30, urtebete bete duelako. Familia osoaren partez, bereziki



Aldibi

ALDIBI AUTOAK



ALDIKAR AUTOAK, S. L.



ZATOZ, EZ ZARA DAMUTUKO

Olaso kalea, 23 - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 37 - Faxa: 943 74 35 24
(Lehen Autos Artetxe)

Zigarrola kalea, 1 - 20500 Arrasate
Tel: 943 71 20 02 - Faxa: 943 79 65 65

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*0% 10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*

San Frantzisko, 43 - Tel: 943 74 27 20 - ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 - Tel: 943 20 34 45 - EIBAR

HERRIKO ANTZOKIA



ZINEA, MUSIKA eta DANTZA

TANGO

Carlos Saurak zuzenduriko pelikula

Azaroak 5, osteguna

Gaueko 22:30ean

TANGONEANDO

Musika eta dantza ikuskizuna

Azaroak 6, ostirala

Gaueko 22:15ean



FORU ALDUNDIA



MUSIKA ETA DANTZA
UDAL FUNDAZIOA



DEBEGESA